

Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena

(HAKOBAk onetsia)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Argitaraldia: 1.a, 2017ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Maketazioa: EkipoPO

Aurkibidea

Sarrera	5
Azterlana ulertzeko hainbat jakingarri	5
Ondorio nagusiak.....	6
Ondorengo tauletan erabilitako laburduren azalpena.....	8

Taulen aurkibidea

1. taula: elkarreraginbako langileak	9
2. taula: hainbat lanbidetako langileak.....	10
3. taula: langile arduradunak.....	11
4. taula: elkarreraginezko lanpostuak 1 eta 2	12
5. taula: administrari laguntzaileak.....	13
6. taula: administrariak	13
7. taula: idazkariak	14
8. taula: teknikari laguntzaileak	15
9. taula: erdi mailako teknikariak.....	16
10. taula: ekonomia alorreko teknikariak	16
11. taula: euskara muin duten lanbideak	17
12. taula: hezkuntza-alorreko teknikariak.....	18
13. taula: babes-indarrak	19
14. taula: gizarte-gaiak.....	20
15. taula: kultura-alorreko teknikariak.....	21
16. taula: ingeniaritza-, zientzia- eta goi-ikasketa teknikoak.....	22
17. taula: osasun-alorreko teknikariak.....	23
18. taula: kudeaketa-alorreko teknikariak.....	24
19. taula: zuzenbidearen-alorra	25
20. taula: arduradunak	26

Sarrera

Azterketa hau Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan egin dugu, 86/1997 Dekretuaren eraginpeko lanpostu-zerrendako hizkuntza-eskakizunak sailkatzeko (1.HE, 2.HE, 3. HE eta 4.HE).

Azterketaren helburua bikoitza da:

- Batetik, aztertzea hizkuntza-eskakizunak (HE) modu homogeneoan dauden esleituta lanpostuetan ala, aldiz, sakabanaketa eta disfuntzioak dauden, eta, horrela bada, desoreka hori zenbaterainokoa den.
- Bestetik, proposamen orokor bat egitea, lanpostuei esleitu dakizkiekeen HEak zehaztuz.

Azterlana ulertzeko hainbat jakingarri

Azterlana ezin da ulertu, ordea, honako oharrok kontuan hartu barik:

- Txosten honetan, herri-administrazioetako lanpostuetan esleituta dauden hizkuntza-eskakizunen egoera islatzen saiatu gara. Horretarako, ondorengo erakunde hauetako lanpostuak aztertu dira:
 - EAEko Administrazio Orokorra
 - Udalak, mankomunitateak, kuadrillak
 - Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak
 - Euskal Herriko Unibertsitatea
 - Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa
 - Herri Kontuen Euskal Epaitegia
 - Lan Harremanen Kontseilua
 - Datuak Babesteko Bulegoa
 - Haurreskolak Partzuergoa
 - Etxepare Euskal Institutua
 - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Erakunde hauek dira 86/1997ko Dekretuaren aplikazio eremua osatzen dutenak, erabilera-planak egin eta hizkuntza-eskakizunen sistemaz baliatzeko obligazioa dutenak, alegia. Ikerketa honetarako ez dira kontuan hartu URA, Uraren Euskal Agentziako lanpostuak, erakunde honen lanpostu-zerrenda behin-behinekoa delako. 2015ean eskura zeuden datuak hartu dira kontuan, V. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioarekin batera eguneratutakoak, alegia. Guztira, 37.493 lanpostu. Bestalde, lanpostu horiek guztiak 20 lanpostu-multzotan sailkatu dira, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoak eskuratutako sailkapenean oinarrituta.

Ondorio nagusiak

Ezagun denez, aspaldi ekin zioten Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal administrazio publikoek hizkuntza-eskakizunak esleitzeko prozesuari. Huts-hutsetik abiatu behar izan ginen ezinbestean, eta, oro har, sistemak koherentziari eutsi dio; hau da, hizkuntza-eskakizunen esleipenak modu egokian egin dira urte hauetan guztietan; egia da, gainera, aztertuta, inkoherentzia irudi lezaketen batzuk sortu direla hizkuntza-eskakizunen asignazioak egiterakoan, baina disfuntzio horiek guztiz normalak dira, kontuan hartzen badugu zenbat erakunde eta lanposturi buruz ari garen, eta zenbat organo erabaki-hartzaile ditugun tartean. Gainera, disfuntzio deitu daitezkeen horiek, maiz, lanpostuaren deskribapenean egindako funtzioen deskribapenean daude oinarrituta.

Lehenengo eta behin esan behar dugu hizkuntza-eskakizunen sistemari esker bermatu dela, neurri handi batean, euskararen ezaguera Administrazioari langileen artean. 1990. urtean, % 23,5 ziren euskara era batera edo bestera ezagutzen zuten langileak; 2016an, berriz, kopuru hori % 68ra igo da. Gauzak horrela izanik, gaur egun esan dezakegu Administrazioari langile gehienak prestatuta daudela, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko, eta hori gertatu dela Administrazioari berak eta, batez ere, langileek berebiziko ahalegina egin dutelako urte hauetan guztietan.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar normalizazioaren benetako erronka erabilera dela eta ez ezaguera hutsa. Onartu beharra dago hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeak ez dakarrela, berez eta besterik gabe, euskara Administrazioan erabiltzea; aitzitik, beste faktore batzuk daude, akreditazioa bera baino askoz garrantzitsuagoak, zuzen-zuzenean eragiten dutenak erabilera: euskararen kudeaketa aurreratua eta zeharkakoa, liderren jarrera aktiboa, erabilera planak, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen betetze-maila eta abar. Horri dagokionez, ezin aipatu gabe utzi hango eta hemengo hizkuntza normalizazio teknikariek egin duten eta egiten ari diren lan bikaina eta IVAPen hainbat programaren ekarpena (ELET, Elebi, Idazlagun, administrazio-hizkera, hizkuntza-prestakuntza, IZO, eta abar).

Hizkuntza-eskakizunen sistemara bueltatuta, lehen esan dugun bezala, badira, izan, desajuste batzuk, eta izen bereko lanpostuetan hizkuntza-eskakizun bat baino gehiago aurkitu daiteke. Badira arrazoiak horretarako. Hizkuntza-eskakizunen esleipena lanpostu bakoitzaren ahozko eta idatzizko funtzio komunikatiboei begira egiten da, eta funtzio horiek administrazio batetik bestera aldatu daitezkeenez, normala da batzuetan lanpostu batek hizkuntza-eskakizun bat izatea administrazio batean eta beste bat beste batean. Edozein kasutan ere, ondorengo tauletan ikusiko duzuen bezala, sistema koherentea da eta aldea, alderik dagoenean, maila batekoa izaten da, gora edo behera. Muturreko kasuak (ikusirik ondorengo adibide hauek), gure proposamenetik kanpo geratuko dira eta baztergarriak izan beharko lirakeke bihar-etziko esleipenetan.

LANPOSTUA	TALDEA	HE
Auditoretzan Aholkularia	A	1
Ikuskatzaile Nagusia	A	1
Kontuhartzailea	A	2
Responsable Comunicación de Alcaldía	A	2
Lurralde-Antolamenduko Arkitektoa	A	2
Azterlan, Plang.-Proiekt.zerb.ingeniaria	A	2
Anatomia Eta Elikadura Irakaslea	B	2
Adm.laguntzailea	C	4 TG
Udaltzainburua	C	4
Idazkaritza Administraria	C	4

Bukatzeko, esan nahi dugu proposamen honetan ez dugula bazter utzi nahi Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak iazko apirilean Legebiltzarrean aurkeztu zuen txostena. Hain zuzen ere, dokumentu horren laugarren ondorioak hau dio hitzez hitz:

4.- Trebetasunkako egiaztapena

Gaur egun, hizkuntza-eskakizun bat bete nahi duenak hizkuntza-eskakizun horri dagozkion trebetasun guztiak egiaztatu behar ditu (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamena); nolahi ere, trebetasun komunikatibo horiek askotan ez daude denak maila berean; are gehiago: batzuetan gerta liteke trebetasun bat edo beste beharrezkoak ez izatea lanpostu jakin batean jarduteko (...).

Adibideak oso ugariak dira. Har ditzagun, esaterako, aguazilak, etxeko laguntzaileak, atezainak, begiraleak... Mintzamenean, seguru asko, horiek guztiek 2.HE behar dute; baina, justifikatuta ote dago maila hori bera eskatzea idazmenean? Aholkulari juridiko batek seguru asko 4.HE behar du idatziz, bere lana egiteko; ahoz ez ote da nahikoa 3.HErekin kasu askotan?

HAKOBaren ustez, trebetasunkako egiaztapenak hizkuntza-eskakizunen kudeaketa egokiagoa ahalbidetzen du, eta, alde horretatik, HPSri eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala 86/97 Dekretua gaurkotzeko eta kontzeptu hori bertan sartzeko. Eskaeraren aurrean, HPSk konpromiso hori hartzen du bere gain.

Ondorengo tauletan erabilitako laburduren azalpena

EJ	Eusko Jaurlaritza
TE	Toki-erakundeak
GT	Goi-mailako teknikaria
ET	Erdi-mailako teknikaria
LH	Lanbide-heziketa
HE	Hizkuntza-eskakizuna
LANP	Lanpostua
KOP	Langile-kopurua
treb	trebetasunka
T	Talde profesionala
H	Homologazioa salbuespenaren dekretukoa
HPS	HPSren proposamena
Zk.	Taula-zenbakia

1. taula: elkarreraginbako langileak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
1	EJ, elkarreraginbako langileak: garbitzailea, zerbitzari-garbitzailea, sukaldaria	665	665	% 100	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0	e	0-b1	1-2
	TE, elkarreraginbako lanbideak: sukaldaria, garbitzailea, kalegarbitzailea, zametaria	1.092	942	% 86,26	150	% 13,74	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c2 - e	0-b1	1-2
	Elkarreraginbako lanbideak	1.757	1.607	% 91,46	150	% 8,54	0	% 0	0	% 0	0	% 0			

Oharra: kasu honetan ez dago zalantzarik. Langile horiei, oro har, 1.HE dagokie; nolahi ere, jendearekin ohiko komunikazio ugari duten lanpostuetan 2.HE ere eskatu liteke.

2. taula: hainbat lanbidetako langileak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
2	EJ, lanbideak: laguntzailea, gidaria, biltegiko langilea, ofiziala, mekanikaria, gau-jagolea, peoia, gidaria, arotza, iturgina, ibilgailuen txapa-konpontzailea, igeltseroa, elektrikaria, arotza, ibilgailuen mekanikaria, saileko gidaria, EATko laguntzailea, inprimategiko ofiziala, inprimategiko laguntzailea, galdaragilea, mantenuko ofizial mekanikaria, kirol instalazioen mantenimenduko ofiziala	220	216	% 98,18	4	% 1,82	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c2-e	b1	1 - 2
	TE, lanbideak: ofiziala, zurgina, peoia, pintorea, mekanikaria, igeltseroa, ehorzlea, errementaria, langile laguntzailea, lorezaina, jostuna, iturgina, gidaria, elektrikaria, mantentze-langileak, biltegiko langilea, zerbitzu anitzetako langilea, zerbitzu anitzetako ofiziala, zaintzailea	2.497	1.823	% 73,01	674	% 26,99	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c1-c2-e	b1	1 - 2
	Lanbideak	2.717	2.039	% 75,05	678	% 24,95	0	% 0	0	% 0	0	% 0			

Oharra: kasu honetan ere, zalantza gutxi. Langile horiei, oro har, 1.HE dagokie; nolnahi ere, jendearekin ohiko komunikazio ugari duten lanpostuetan 2.HE ere eskatu liteke.

3. taula: langile arduradunak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
3	EJ, langile arduradunak: gainbegiralea, ikuskatzailea, ofizial arduraduna, mantentze-lanen taldeko burua, sukaldari-burua	22	19	% 86,36	3	% 13,60	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c2-e	b1	2
	TE, langile arduradunak: ofizial arduraduna, sukaldari-burua, garbiketa-arduraduna, eraikin-arduraduna	473	5	% 1,06	431	% 91,10	37	% 7,82		% 0		% 0	c1-c2-e	b1	2
	Langile arduradunak	495	24	% 4,85	434	% 87,07	37	% 7,47	0	% 0	0	% 0			

Oharra: ikusten denez, hemen alde handia dago EJK eta beste administrazioek jarraitzen dituzten irizpideen artean. Eusko Jaurlaritzan 1. HE da nagusi; eta gainerakoetan, 2.HE. Gure ustez, 2.HE eskatu beharko litzaieke jendearekin ohiko komunikazio ugari dutenei, eta ematen du langile horiek badituztela horrelako komunikazioak. 3 HE proposamenetik kanpo geratzen da.

4. taula: elkarreraginezko lanpostuak 1 eta 2

zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
4	EJ, elkarreraginezkoak 1: telefonista, harrerarlari telefonaria, zuzenean agentea	105	0	% 0	105	% 100	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c2 -c1	b1-b2	2-3
	TE, elkarreraginezkoak 1: telefonista, harrerarlari telefonaria	52	0	% 0	41	% 78,80	11	% 21,15	0	% 0	0	% 0	c2	b1	2-3
	EJ elkarreraginezkoak 2: atezaina, ikastetxeetako mendekoa, mandataria	505	503	% 99,60	2	% 0,40	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c2-c1-d	b1	2
	TE, elkarreraginezkoak 2: aguazila, atezaina, eskolako atezaina, jakinarazlea, kontserjea-ordenantza, mandataria, mendekoa	1.109	278	% 25,07	822	% 74,12	9	% 0,81	0	% 0	0	% 0	c2-c1-d	b1	2
	Elkarreraginezkoak	1.771	781	% 44,10	970	% 54,77	20	% 1,13	0	% 0	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2.HE dagokie, jendearekin ohiko komunikazioak dituztelako. Telefonisten kasuan, 3. HE ere onartu liteke. Eskolako atezainen eta mendekoen kasuan, 1 HE ez litzateke nahikoa herritarrekiko eta ikasleekiko ahozko komunikazioa bermatzeko; hortaz, 2.HE proposatzen da haientzat.

5. taula: administrari laguntzaileak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
5	EJ, administrari laguntzailea	1.223	17	% 1,39	1.199	% 98,04	7	% 0,57	0	% 0	0	% 0	c2	b1	2-3
	TE, administrari laguntzailea	1.648	2	% 0,12	1.395	% 84,65	251	% 15,23	0	% 0	0	% 0	c2	b1	2-3
	Administrari laguntzailea	2.871	19	% 0,66	2.594	% 90,35	258	% 8,99	0	% 0	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

6. taula: administrariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
6	EJ, administrariak: administrari orokorrak, doako laguntza juridikoaren batzorderako administraria, administrari informatikaria, lantoki-burua	1.251	0	% 0	1.016	% 81,22	231	% 18,47	4	% 0,32	0	% 0	c1	b2	2-3
	TE, administrariak: administrari orokorrak, ikuskari-administraria, zerga-ikuskaria, administrari itzultzailea (sic.)	4.534	1	% 0,02	3.252	% 71,72	1.276	% 28,14	5	% 0,11	0	% 0	c1	b2	2-3
	Administrariak	5.785	1	% 0,02	4.268	% 73,78	1.507	% 26,05	9	% 0,16	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE eta 4. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

7. taula: idazkariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
7	EJ, idazkaria (adm)	137	0	% 0	136	% 99,27	1	% 0,73	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	TE, idazkaria (adm)	337	2	% 0,59	286	% 84,87	49	% 14,54	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	Idazkaria (adm)	474	2	% 0,42	422	% 89,03	50	% 10,55	0	% 0	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

8. taula: teknikari laguntzaileak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
8	EJ, teknikari laguntzaileak: laborategiko laguntzailea, delineatzailea, delineante proiektugilea, mantentze-teknikaria, ikuskari nagusia, irratiko mantentze lanen teknikaria, irratiko mantentze-lanen ikuskatzailea, irudi analogiko/digitaleko teknikaria, laborategiko eta osasun publikoko laguntzaileak, baliabide orokorren teknikaria (ikus-entzunezkoak), artxibo-laguntzailea, moldatzailea, arduradun nagusia*, barrako arduraduna, kaizaintzako kaboa, eragiketa-eta monitorizazio-teknikaria	142	19	% 13,38	123	% 86,62	0	% 0	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	TE, teknikari laguntzaileak: teknikari espezialista (LH), teknikari laguntzailea, informatika: teknikari laguntzailea, informatikako teknikari berezilaria, delineatzailea, laborategiko analista, klinika laguntzailea, gobernanta, etxez etxeko laguntzailea, gazteria: teknikari laguntzailea, kultura: teknikari laguntzailea, kirola: teknikari laguntzailea, liburutegiko laguntzailea, dokumentazioa: teknikari laguntzailea, artxiboak: teknikari-laguntzailea, turismo: teknikari laguntzailea, prebentzioa: teknikari laguntzailea, kimika: teknikari espezialista osasun-alorreko teknikari-laguntzaileak: erizain-laguntzailea, egoitzetako laguntzailea, osasun-laguntzailea, al baitari- laguntzailea, soroslea, begiralea	2.788	307	% 11,01	2.053	% 73,64	428	% 15,35	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	Teknikari laguntzaileak	2.930	326	% 11,13	2.176	% 74,27	428	% 14,61	0	% 0	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

9. taula: erdi mailako teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
9	EJ, administrazioko erdi-mailako teknikariak	98	1	% 1,02	53	% 54,08	43	% 43,88	1	% 1,02	0	% 0	b	b2	2-3
	TE, erdi-mailako teknikariak	542	0	% 0	69	% 12,73	459	% 84,69	14	% 2,58	0	% 0	b	b2	2-3
	Erdi-mailako teknikariak	640	1	% 0,16	122	% 19,06	502	% 78,44	15	% 2,34	0	% 0			

Oharra: kasu hau dudazkoa da. Teknikari hauek B taldekoak dira, baina eskatzen zaizkien ikasketak ez dira unibertsitarioak; hala ere, erdi mailako ikasketa unibertsitarioak dituztenen taldean integratuta daude. Beraz, kasuan kasu, 2 edo 3.HE eskatzea arrazoizkoa izan liteke. Horrenbestez, 1. HE eta 4. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

10. taula: ekonomia alorreko teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
10	EJ, ekonomia alorreko teknikariak	471	0	% 0	12	% 2,55	437	% 92,78	22	% 4,67	0	% 0	a-b	c1	3-4
	TE, ekonomia alorreko teknikariak: auditorea (GT), auditoretzan-aholkularia, diruzaina (ET), diruzaina (GT), ekonomilaria (GT), enplegu-teknikaria (ET), kontratazio-teknikaria (ET), kontratazio-teknikaria (GT), kontuhartzailea (GT), zerga-agentea (ET), zerga-ikuskaria (ET), zerga-ikuskaria (GT), zerga-teknikaria (ET), zerga-teknikaria (GT), turismoko teknikaria (ET)	966	8	% 0,83	29	% 3	787	% 81,47	142	% 14,70	0	% 0	a-b	c1	3-4
	Ekonomia alorreko teknikariak	1.437	8	% 0,56	41	% 3	1.224	% 85,18	164	% 11,41	0	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 1. HE eta 2. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

11. taula: euskara muin duten lanbideak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
	EJ, euskara muin duten lanbideak: itzultzailea, itzultzaile-interpretaria, itzulpeneko eta normalizazioko teknikaria, hizkuntza-plangintzako teknikaria, hizkuntza-normalizazioko teknikaria, euskalduntzeko teknikaria, hezkuntza-sistemaren kalitateko teknikaria, administrazio-hizkerako teknikaria, euskara ataleko burua, euskarazko irakaslea, didaktika-teknikaria (HABE), EAEko itzultzaile-koordinatzailea, irakaslea, jarraipen eta ebaluazio teknikaria (HABE), prestakuntza eta hizkuntza normalkuntza teknikaria	172	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0	172	% 100	a-b	c1 - c2	4
11	TE, euskara muin duten lanbideak: arlo-burua euskara (36), lanbide-heziketako irakaslea (1), euskaltegiko irakaslea (+zuzendaria, +idazkari akademikoa...) (313), euskara-teknikaria (euskara-teknikaria, normalizazioko teknikaria, euskara-dinamizatzailea, euskara/kultura teknikaria, euskara/hezkuntza teknikaria ...) (116), itzultzailea (+trebatzaile, +euskara-teknikaria, +interpretaria, +terminologoa ...) (109), administrari laguntzaile itzultzailea (1), administrari itzultzailea (8)	584	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0	584	% 100	a - b	c1 - c2	4
	Euskara muin duten lanbideak	756	0	% 0	0	% 0	0	% 0	0	% 0	756	% 100			

Oharra: zalantzarik ez. Horiei guztiei, 4.HE

12. taula: hezkuntza-alarreko teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
12	EJ, hezkuntza-alarreko teknikariak: ikastetxeetako teknikaria, hezkuntza-sistemaren kalitateko teknikaria, hezkuntza-berrikuntzako teknikaria, lanbide-heziketako teknikaria, unibertsitateko teknikaria, ikerketa-programetako teknikaria, hezkuntza, plangintza eta garapeneko teknikaria, ebaluazio teknikaria, pedagogoa	58	0	% 0	0	% 0	52	% 89,66	6	% 10,34	0	% 0,00	a-b	c1	3-4
	TE hezkuntza-alarreko teknikariak: hezkuntza-teknikaria (GT), hezkuntza-teknikaria (ET), hezkuntza-teknikaria EHU (ET), hezkuntza-teknikaria EHU (GT)	120	0	% 0	4	% 3,33	112	% 93,33	4	% 3,33		% 0	a-b	c1	3-4
	TE, hezitzaileak: musika-irakaslea, dantza-irakaslea, hezitzailea (ET), hezitzailea (Haurreskolak Partzuergoa), hezitzailea (LH), hezitzailea (ET)	2.400	0	% 0	113	% 4,71	2.287	% 95,29	0	% 0	0	% 0	a-b	c1	3-4
		2.578	0	% 0	117	% 4,54	2.451	% 95,07	10	% 0,39	0	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 2. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

13. taula: babes-indarrak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
13	TE, udaltzaina, udaltzain laguntzailea, suhiltzailea, suhiltzaile-gidaria	3.618	221	% 6,11	3.365	% 93,01	32	% 0,88	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	TE, udaltzain lehena, udaltzain kaboa, udaltzainburua, udaltzain inspektoreordea, udaltzain komisiario-ordea, udaltzain ofiziala, udaltzain ofizialordea, udaltzain sarjentua, udaltzainordea, suhiltzaile-kaboa, suhiltzaile-ofizialordea, suhiltzaile ofiziala, suhiltzailea-sarjentua	919	0	% 0	584	% 63,60	330	%35,91	5	% 0,54	0	% 0	b-c1	b2	2-3
	TE, basozainak	187	9	% 4,81	122	% 65,20	56	% 29,95	0	% 0	0	% 0	c1	b2	2-3
	Babes-indarrak	4.724	230	% 4,87	4.071	% 86,20	418	% 8,85	5	% 0,11	0	% 0			

Oharra: langile horiei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE eta 4. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

14. taula: gizarte-gaiak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
14	EJ gizarte-gaiak: immigrazioko teknikaria, prospekzioko teknikaria, psikologoa, droga-mendekotasuneko teknikaria, emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko teknikaria, gizarte-gaietako teknikaria, hauteskunde zerbitzuko teknikaria, gizarte-laguntzako teknikaria, azterlanetako teknikaria, prentsako teknikaria, gazteriako teknikaria, gizarte-langilea, estatistika teknikaria	171	0	% 0	3	% 1,75	111	% 64,91	57	% 33,33	0	% 0	a-b	c1	3-4
	TE gizarte-gaiak: gizarte-langilea, gizarte-laguntzailea, berdintasuneko teknikaria (ET), berdintasuneko teknikaria (GT), drogomenpekotasun-teknikaria (ET), drogomenpekotasun-teknikaria (GT), immigrazio teknikaria (ET), psikologoa, pedagogoa, psikopedagogoa, soziologoa	781	1	% 0,10	15	% 1,92	732	% 93,73	33	% 4,23	0	% 0	a-b	c1	3-4
	Gizarte-gaiak: teknikariak	952	1	% 0,11	18	% 1,89	843	% 88,55	90	% 9,45	0	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 1. HE eta 2. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

15. taula: kultura-alarreko teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
15	EJ, kultura-alarreko teknikariak: kultura-plangintzako teknikaria, kultura ondareko teknikaria, kultura-ondareko arkitektoa, kirol-kudeatzailea, kirol-programazioko teknikaria, artxibo, liburutegi eta dokumentazioko teknikaria, agiritegi- eta argitalpen-teknikaria, liburuzain dokumentalista, kirolaren kudeatzaile teknikoa, telekomunikazio-teknikaria, liburuzaina, dokumentazio eta liburutegirako arduraduna	70	0	% 0	2	% 2,86	33	% 47,14	35	% 50	0	% 0	a-b	c1	3-4
	TE, kultura-alarreko teknikariak: musikoa, kultura-teknikaria (ET), kultura-teknikaria (GT), kirol-teknikaria (ET), kirol-teknikaria (GT), gazteriako teknikaria (ET), gazteriako teknikaria (GT), museologoa (ET), museologoa (GT), euskara-kultura-hezkuntza teknikaria (GT), dokumentazio-teknikaria (ET), dokumentazio-teknikaria (GT), komunikazio-teknikaria (ET), komunikazio-teknikaria (GT), kazetaria	600	86	% 14,33	31	% 5,17	398	% 66,33	85	% 14,17	0	% 0	a-b	c1	3-4
	Kultura alorreko teknikariak	670	86	% 12,84	33	% 4,93	431	% 64,33	120	% 17,91	0	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 1. HE eta 2. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

16. taula: ingeniaritza-, zientzia- eta goi-ikasketa teknikoak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
16	EJ, ingeniaritza-, zientzia- eta goi-ikasketa teknikoak: ingurumen-teknikaria (GT), ingurumen-teknikaria (ET), goi-mailako ingeniaria, arkitektoa, hirigintza-teknikaria (GT), hirigintza-teknikaria (ET),arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa	176	0	% 0	38	% 21,60	131	% 74,40	7	% 3,98	0	% 0	a	c1	3-4
	TE ingeniaritza-, zientzia- eta goi-ikasketa teknikoak: ingurumen-teknikaria (GT), ingurumen-teknikaria (ET), goi-mailako ingeniaria, arkitektoa, arkitekto teknikoa, hirigintza-teknikaria (GT), hirigintza-teknikaria (ET), kimikoa (GT)	585	0	% 0	20	% 3,42	443	% 75,73	122	% 20,85	0	% 0	a	c1	3-4
	Ingeniaritza-, zientzia- eta goi-ikasketa teknikoak	761	0	% 0	58	% 7,62	574	% 75,43	129	% 16,95	0	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 2. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

17. taula: osasun-alarreko teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
17	EJ, osasun-alarreko teknikariak: medikua, osasun-plangintza, -ikerketa eta -ebaluazio teknikaria, osasunaren sustapeneko teknikaria, osasun-antolamenduko eta osasun-egiaztapeneko teknikaria, osasun publikoko teknikaria, sendagai-informazioko teknikaria, ikuskatzaile medikoa, ikerkuntza biomedikoko teknikaria, epidemiologia-alarreko teknikaria, farmazia-antolamendu eta -prestazioko teknikaria, osasun-hezkuntzako teknikaria, histopatologia-teknikaria, higiene prebentzioaren goi-mailako teknikaria, babeseko eta arrisku-ebaluazioko teknikaria, erizaintza-teknikaria, laborategiko goi-mailako teknikaria, laborategiko teknikari laguntzailea, epidemiologiako teknikari laguntzailea, enpresako olt/eud, analisigilea	355	0	% 0	96	% 27,00	255	% 71,80	4	% 1,10	0	% 0	a-b	c1	3
	T,E osasun-alarreko teknikariak: erizaina (ET), fisioterapeuta (ET), laborategiko teknikaria (ET), laborategiko teknikaria (GT), terapeuta (ET), medikua, albaitaria	481	3	% 0,60	204	% 42,41	272	% 56,55	2	% 0,42	0	% 0	a-b	c1	3
	Osasun-alarreko teknikariak	836	3	% 0,36	300	% 35,89	527	% 63,04	6	% 0,72	0	% 0			

Oharra: gure proposamena, 3. HE. Horrenbestez, 1. HE, 2. HE eta 4. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

18. taula: kudeaketa-alarreko teknikariak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
18	EJ, kudeaketa-alarreko teknikariak: administrazio orokorreko teknikaria, giza baliabideetako teknikaria, pertsonaleko teknikaria, goi-mailako teknikaria, kudeaketa-teknikaria, administrazio-kudeaketako teknikaria, informatikaria (ET), informatikaria (GT)	1.042	0	% 0	57	% 5,47	895	% 85,89	89	% 8,54	1	% 0,10	a-b	c1	3-4
	TE, kudeaketa-alarreko teknikariak: administrazio orokorreko teknikaria, goi-mailako teknikariak, kudeaketa-teknikariak (GT), kudeaketa-teknikariak (ET), mantentze-teknikariak (ET), antolaketa-teknikariak (GT), informatikaria (ET), informatikaria (GT), prebentzio-teknikaria (ET), prebentzio-teknikaria (GT), ikuskari-teknikaria (ET), ikuskari-teknikaria (GT)	924	0	% 0	95	% 10,28	606	%65,58	223	%24,13	0	% 0	a-b	c1	3-4
	Kudeaketa-alarreko teknikariak	1.966	0	% 0	152	% 7,73	1.501	% 76,35	312	% 15,87	1	% 0			

Oharra: lanpostu horiei, oro har, 3. HE badagokie ere, 4. HE ere onargarria izan daiteke zenbait kasutan, betiere funtzio komunikatiboen arabera. Horrenbestez, 2. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

19. taula: zuzenbidearen-alorra

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
19	EJ, zuzenbidearen alorra: aholkulari juridikoa, lege aholkularia, legelaria A, legelaria B, batzorde juridikoko idazkaria, zerbitzu juridiko zentraletako abokatua, idazkari nagusia, lan arriskua prebenitzeko teknikari juridikoa, idazkaritza nagusiko teknikaria	301	0	%0	0	%0	58	%19,27	243	%80,73	0	%0	a	c1	3-4
	TE, zuzenbidearen alorra: idazkaria, idazkari-kontuhartzailea, aholkulari juridikoa, lege aholkularia, arlo-burua (legea)	544	0	%0	1	%0,18	154	%28,31	389	%71,51	0	%0	a	c1	3-4
	Zuzenbidearen alorra	845	0	%0	1	%0,12	212	%25,09	632	%74,79	0	%0			

Oharra: langile horiei, oro har, 3. HE dagokie; hala ere, zenbait kasutan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 4. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 2. HE proposamenetik kanpo geratzen da.

20. taula: arduradunak

Zk.	LANP	KOP	1	%	2	%	3	%	4	%	5	%	T	H	HPS
20	EJ, arduradunak: goi-mailako arduradunak (28) (17), goi-mailako arduradunak (27) (13-16), zuzendariordeak, lurralde ordezkariak	660	0	%0	1	%0,15	373	%56,52	258	%39,09	28	%4,24	a	c1	3-4
	TE, arduradunak: zerbitzu-burua (GT), arlo-burua (GT), arlo-burua (ET), zuzendari-gerentea, zuzendariordea	1.834	1	%0,05	36	%1,96	1.264	%68,92	533	%29,06	0	%0	a b	c1	3-4
	Arduradunak: zerbitzu-burua (GT), arlo-burua (GT), arlo-burua (ET), zuzendari-gerentea, zuzendariordea	2.494	1	%0,04	37	%1,48	1.637	%65,64	791	%31,72	28	%1,12	0	0	

Oharra: langile horiei, oro har, 3. HE dagokie; hala ere, zenbait kasutan eta betiere lanpostuaren funtzio komunikatiboak kontuan, 4. HE ere onargarria izan liteke. Horrenbestez, 1. HE eta 2. HE proposamenetik kanpo geratzen dira.

